



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUARI BURUZKOA – 2002**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EAeren Administrazio Orokorraren 2002ko urtealdiko kontuen fiskalizazioa mamitu du, arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena HKEEren Osoko kideek aho batez oniritzi dute.

Fiskalizazioan egindako lanak kontuak egiterakoan aplikatutako kontularitzako printzipioen eta administrazioaren jardueran legezko arautegia bete izanaren azterketa barne hartzen du. Gainera, txostenean honako auzi hauen gaineko ondorioak jaso dira, Eusko Legebiltzarrak eskatuta aztertu ditugunak:

- Impresores Vasco-Navarros, S.A.ri emandako aurrerakin itzulgarria.
- Gipuzkoako Poliklinika, S.A.ri eta INVIZA, S.A.ri (Tolosako Jasokundeko Andre Mari Klinika) ordaindutako gastu sanitarioen azterketa konparatiboa.

Legea betetzeari dagokionez, erakunde fiskalizatzaileak iritzi positiboa eman du Eusko Jaurlaritzaren jarduerari buruz; hala ere, azpimarratu ditu hainbat salbuespen:

- Aurkeztu den Aurrekontuen likidazioak ez ditu aintzat hartzen Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondorioak, 1/2002 Legeak oniritzitako kredituak baliogabetzen dituena. Nahiz huts hau hasierako kredituak aurkezteari soilik dagokion, eta ez Aurrekontuaren exekuzioari berari, epaia 2003ko otsailean argitaratu baitzen eta ez baitu atzeraindarrik, HKEEk uste du aipamen egin behar zitzaiokeela epai horri likidazioaren dokumentuan.
- Luzatutako aurrekontuan oker bidez jaso dira urtealdiko kredituetarako eta geroko urtealdietarako kontusailak, hurrenez hurren, 14,4 eta 153,8 milioi euro egin dituztenak.
  - Ondasun eta eskubideen ondasun zerrendak ez du 509,7 milioi euroko ondasunen xehekapen banakakoa jasotzen, Euskadiko Ondare Legea urratzen duela.
  - Gobernuak arautegian finkatutako prozedurari jarraiki, 12,5 milioi euroko eragiketak baliokidetu ditu, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak iritzi negatiboa emana zuela.



Autonomia Erkidegoaren Kontuei dagokienez, nahiz iritzia aldekoa den arazoizkotasunari dagokionez, HKEEK kontuetaraketan hainbat errore eta partekatzen ez dituen kontularitzako irizpideen aplikazioa azaleratu du, diruzaintza gerakin erabilgarria 145,1 milioi eurora ekarriz.

Gobernuko kontuek 2002an ez dituzte barne hartzen, aurreko urtealdietan bezalaxe, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren inbertsio konpromisoak, Gobernuak berak 210,4 milioi euroko zenbatekoarekin finantzatzekoak.

Aurreko urtealdietan ez bezala, aurtengoan kontuetan Balantzea eta Emaizten Kontua islatu dira.

Gomendioen atalean, HKEEK berriz ere aurrekontuak lurraldeka likidatzeko beharra azpimarratu du eta horretarako, egozketa irizpide argiak finkatu behar dira, horien jarraipena denboran egitea bideratuko dutenak.

Impresores Vasco-Navarros, S.A. enpresaren alde oniritzitako aurrerakin itzulgarriari dagokionez, erakunde fiskalizatzailearen txostenean ondorioztatu da laguntza hauek arautzen dituen 300/2000 Dekretuan aurreikusitako betekizunak bete direla, langileen batez besteko plantillari dagokionez izan ezik, ez baitu 2000 eta 2001eko urtealdietan 50eko gutxieneko kopurua osatzen eta ez baitu 1,8 milioi eurotik gorako aktiboa guztira egiten.

Legebiltzarrak INVIZA, S.A.ri dagokionez bideratutako beste eskabidearen ondorioz gauzatutako azterketatik hainbat huts azaleratu dira -zeinaren Itun Sanitarioa 2001ean izenpetu baitzen-, esate baterako isilbidezko luzapena egiteko aukera izatea, indarreko arautegiak aurreikusten ez duena; Gipuzkoako Poliklinika, SArekin izenpetutako itunen antzintasuna gogoan hartuta itun berria egiteko gomendatzen da, aurrez dagokion kontratazio espedienteaz izapidetuta.

Bi klinikekin izenpetutako itun, addenda eta klausula osagarriak aztertzeaz gainera, HKEEK egindako gastuak, horien aldakuntzak eta emandako zerbitzuak aztertu ditu, guztien berri fiskalizazio txostenean ematen dela, hutsik batere azaleratu gabe.